

Koldo Mitxelenaren ekarpena euskararen historiari

Joseba A. Lakarra

“**N**i hizkuntzalaritzaren historia-liburuetan, hauen egileen ezjakintasunagatik edo haien harrokeriagatik, desegokienik aztertzen den neogramatikoen korrante zaharreko kide berankorra nauzue, lehenbizikoz hizkuntzalaritza (= hizkuntzalaritza historikoa) zientzia bilakatu zuten haietarikoa”. Hitzok ezarri zituen —eta horrela inork egin lezakeen baino hobeto definitu bere burua—, non eta *Fonética histórica* vascaren 2. argitalpenaren buruan.

Benetako gerla batean, ondoko kartzelaldian eta sasian hainbat urte eman ondoren, 50en hasieran Mitxelena euskal etimologiaren oinarriaz idatziaz —hots, euskalaritza historikoaren hatsarrien garbiketa batez— hasi zuen bere jarduna. Handik aurrera bazterretako dialektoetan nahiz lekukotasun zaharretan datuak bilatu eta analizatzeaz gain (Landucciren Gasteiz aldeko 1562koari jarri hitzaurre bikainean, demagun), gogoeta teorikoak ere plazaratu zituen, inoiz bertoko aldizkari batean laburtuaz —zabalduez eta sendotuaz, hobe— “Amerika (oraindik) urrunetan” atera berria (Martineten aitzineuskarazko herskariena), bertoko zaletuak neka ez uxa ez zitezen.

1963an, *FHV*tik bi urtetara, *Sobre el pasado de la lengua vasca* baino bat lehenago, argitaratu zuen *Lenguas y Protolenguas*, hirukote nagusiaren harkantioia; ez da gainerakoak hura gabe ulertzerik. *FHV* eta *SPLV* eta “Las antiguas consonantes”,

La aportación de Koldo Mitxelena a la historia de la lengua

Koldo Mitxelena fue el vascólogo (“neogramático tardío” decía él) que consiguió que la historia del euskera se cultivara según los estándares universales. Frente a la anterior búsqueda arbitraria de parentescos, sin recons-



“De onomastica aquitana” edo enparatuen bikaintasuna goraipatzea ongi da, baina susmagarri edo esanguratsu egiten da horiekin batean *L&PL* ez agertzea. Orobat, Mitxelenaren *FHV* Gavel-Uhlenbeck-Schuchardt edo Azkueren gainetik jartzen dutenak Trubetzkoy, Bloomfield, Sapir, Jakobson eta Martinet aitapontekoak dira, batetik (baita Greenberg eta Chomsky ere geroxeago), eta Meillet, Kurylowicz, Benveniste, Watkins... bestetik (honetan ere baitzuen aitzindari eta eredu onik). *SPLV* zoragarriak 50 urte betearren hasierako distira eta trebezia gorde du eta ez da euskararen historiaren ikerketarako abiaburu hoberik. Urte berean agertu *Textos Arcaicos* geroztik hizkuntzaren historiaren azterketaren bigarren oina den filologiaren pizgarri bikaina da. (Bizpahiru urtean izango bide ditugu “Monumenta Linguae Vasconum”ekoek prestatu horren eta Sarasolaren 1983ko jarraipen ezagunaren bertsio zuzendu, zabaldu eta eguneratuak).

Duela hogeitau urte Vovinek “japonierak beste inongo hizkuntzak baino bere historiak kitenkeria gehiago pairatu behar izan du” zioen; esan gabe doa, Vovinek ez zituen euskararekikoak ezagutzen. Hizkuntzalaritza historikoaren helburuak zein diren jakin gabe (jakin *nahi* gabe, usu) euskarari jatorri eta ahaide ugari bilatu zaizkio, unean-uneko iritzi-emaiaren arabekoak. Konparaketa —hori ere gutxitan egin izan da akats eta iruzur larri gabe— ez eze berreraiketa (aitzin-euskara-harakoarena edota a.e.-honakoarena, berdin da) ez dira berez helburu, lanabes eta bide ezinbesteko baizik. Ez ahanztu, gainera, euskara eta beste edozein ustezko ahaidetzakoren arteko konparaketatik abiatu behar lukeen berreraiketa estandar bakarra ere ez dela; ezta horretarako gogoaren erakusgarri txikienik ere.

trucción de la protolengua que justificara tal presunción (por ello, sin interés lingüístico alguno), se planteó en su *Fonética histórica vasca* (1961-77) la reconstrucción del protovasco. Tal objetivo, además del interés intrínseco, era un paso previo para trazar la (pre)historia de la lengua en múltiples trabajos y para poner las bases de su estudio sistemático (*Sobre el pasado de la lengua*, 1964).

Si bien la *FHV* y *Sobre el pasado* son las máximas aportaciones del autor, vigentes aún en lo fundamental, no cabe olvidar “De onomastica aquitana”, “Las antiguas consonantes”, la “Introducción” a Landuchio [1562], *Textos arcaicos* “Lengua común y dialectos vascos” y muchas otras. Con todo, es en *Lenguas y protolenguas* (1963) donde desarrolló sus ideas sobre reconstrucción que subyacen a su labor; no es



laz joan zen Watkinsek behin baino gehiago amaitzen zuen esaera xeble batez: “Kontu guztia da zerekin erka jakitea” (“zertarako” gehitzea merezi luke, beharbada). Watkinsek zioena konparatisten artean —eta hizkuntzalari historikoek konparatistak ditugu, inoiz hizkuntza bakarreko konparaketak egin behar izan arren—, “kontua da ofizioa ezagutzea” itzul liteke huts handirik gabe.

Mitxelenak *FHVn* (edo “Las consonantes”en) bilatzen zuena sinplea zen, ez erraza: aitzineuskara berreraikitzea, hortik lekukotasun zahar eta berriagoetarako bidea berreginaz hizkuntzaren historia egiteko. Bere jomuga iritsi zuela fruituek dioskute ozenki: 50 urte geroago, haren sistema darabilgu funtsean eta haren 1400-1500 etimologiek euskal linguistika diakronikoa sostengatzen jarraitzen dute, gainerako tradizioetan bezala (Watkins *dixit*). Zenbait ohar eta osagarri eskaini ahal diegu haren berreraiketa eta etimologiei, baina Mitxelenaren eskua antzeman liteke guztien gaintik.

Hau ez da haren askaziko izan nahiak eragin lilura edo “zeharbideko antuste”, Mitxelenak berak 80etako gazte ausarten baten Chomskyrekiko admirazio neurrigabea salatuz bezala. “Euskararen ikerketa historikoa eredugarri izan liteke gainerako hizkuntza isolatuen ikerketarako” esanaz amaitzen zuen 2011n Lyle Campbell-ek KM Katedraren Biltzarreko artikulua. 1988an lehenengoz atera zenetik, haren *Introduction to historical linguistics* da mundu mailan era horretako lanik ospetsuena eta ez arrazoirik gabe, jende gutxi biltzen baitu bere baitan egilearen ezagutza aparta hizkuntzalaritza uraliko eta amerindioan, bide batez, indoeuropar, germaniko, erromanikoan... gehienok baino hobeto moldatuaz. Horko “§6.2.2. How can we advance knowledge of the history of language isolates?” zatian mundu osoko ikasleek barne berreraiketa, berreraiketa konparatua, mailegaketa eta “hitzak eta gauzak” metodoek egiteko garrantzitsu horretan eskura dezaketenaren adibide gisa, euskararen lortutakoa da aurkeztu bakarra (170-2). Ba ote inor ezusteko laudorio eta arreta horren %99 edo gehiago Mitxelenaren jardunari aitortzen ez dionik?

Nik, aurrez aurre Gasteizen ezagutu nuen 1979-80an eta liburu eta artikuluetan lehenago irakurria bere Euskal Filologiako sei ikastaro (fonologiaz, historiaz eta bina linguistikaz eta testuez) eta hizkuntzalaritza indoeuroparreko zoragarri batez osatu nuen —“Lengua común y dialectos vascos” aurreko hitzaldi zirraragarria ere gogoan dut—, han-hemen argitaratuetarik (gero *Lengua e historian*, *Palabras y textos*en, *Sobre historia de la lengua vasca*en eta arestiago, bere Obra Guztietan bildura) falta nituen zenbait gehituaz.

casual que ésta comenzara con “De etimología” (1950), mostrando la debilidad teórica y metodológica anterior.

Lyle Campbell, en su mundialmente famosa *Introduction to historical linguistics*, 3ª ed. (2013), desarrolla un único ejemplo de lo que puede obtenerse en la investigación de la (pre) historia de lenguas aisladas genéticamente: recurrir, precisamente, a la labor realizada en torno a la prehistoria de la lengua vasca. ¿Cree alguien que el 99% de semejante mérito no corresponde a Koldo Mitxelena?

Gogoan dut lehen urtean Sarasolaren ikasgai-rako prestatu nuela Betolatzairen dotrinaren hiztegia eta hark esan zidala jefek nirekin hitz egin nahi zuela lana *ASJU* delako batean argitaratu baino lehen. Han ginen Ibon eta biok isilik orriak gora eta behera zerabiltzan bitartean eta harako batean, begiratu eta holako zerbait bota zidan: “eta... alegia, esan ahal didazu zergatik lapurtera zaharrean *alhaba* <h> batez idazten zen?”. Harriturik, “ba, ez dakit... baina uste dut zuk zeuk ere horixe zenioela *FHVn*”, erantzutera ausartu nintzen. “Bai, ba, horrexegatik galdetzen dizut” jaso nuen ordaitan; jardun honetan maila bera itxaroten zen, antza, katedradun helduarengandik eta hasi-asmotan zen ikaslearengandik.

Hurrengo ikasturtean Barrutiaren *Actoaren* edizioa prestatzen ari nintzela jakinik, garai hartan ohiko ziren grebetariko batean bi goiz oso hartu zituen nire lana neurekin batean hasi eta buka begiratzeko. Txunditurik nintzen bere denbora urriarekin erakutsi eskuzabaltasunarekin. Amaitu eta iradokizunen bat eman ondoren, “eraman iezaiozu Agudi atera dezaten” esatean, nik “eskerrik asko, baina zeure izenean behar luke” ihardetsi nion —testuko 512 lerroetarik eta haiei zegozkien oharretarik ez zuen bat ukitzeke utzi—; berak, ordea, “aizu, horretarako gaude” iltzatu zidan buruan. Euskararen historiaren ikerketan eta linguistiko historikoan dihardugunok nekez dugu ahaztuko!